

## **FAMILIARENTZAT HAINBAT ORIENTABIDE ETXETIK HEZKUNTZA PROZESUAREKIN JARRAITZEKO:**

Gaur egun bizi dugun egoerak eskola komunitatea erronka handi baten aurrean ipintzen du. Orientaziotik hainbat jarraibide edo aholku eskeini nahi dizkizuet:

**1.-** Zuen seme-alabek denbora bat zehaztu beharko dute egun hauetan irakasleek bidaltzen dizkieten etxeko lanak eta jarduerak egiteko. Horretarako egunez egun, **PLANIFIKAZIO** tresna bat beharko dute (taula bat ordutegiarekin, agenda...).

**2.-** Ohiturak, errutinak... bultzatzeko, konstantea izan behar zara.

**3.-** Gauzak egiteko denbora soberan egongo da eta **horregatik jarduerak aldatzea eta dosifikatzea** komenigarria izango da. Eguna eraginkortasunez aprobetxatzeko lan egiteko bi zatitan banandu: goizean eta arratsaldea. Gainera atsedenaldiak tartekatu beharko dituzte.

**4.-** Irakasleek egindako lanak **ebaluatzeko** direla gogoratu behar duzue.

**5.- Etxeko lanak** (mahaia batzea, garbitzea, arropa eskegi, erratza edo aspiradora erabiltzea...) **elkarbanatu** behar dira familiakoen artean. Une egokia da etxeko lanaz duen garrantziaz jabetzeko eta hainbat gauza ikasteko (sukaldatzea...). Lan banaketa hau adostu beharko da.

**6.- Aisialdia:** lanak egiteaz gain (etxeko lanak eta eskolako lanak) zuen seme-alabek denbora libre izango dute. Aisialdian jolasteko eta pelikulak, mugikorrak, musika, bideoak entzun eta ikusteko aukera izango dute. **Sormena bultzatu** ere marrazkiak, komikiak eta esku-lanak egiten.

**7.- Irakurtzeko garaia** ezin hobea da.

**8.-** Erabili internetak eskeintzen dizkigun baliabideak (museo bisita birtualen, dokumentalak...) baina **gailu elektroniko erabilera mugatu**, aintzat hartuta zuen seme-alabak eskolako lanak egiteko eta lagunekin komunikatzeko denbora luze pantailen aurrean pasatuko direla.

**9.-** Familikoen artean mahai-jokoetara jolasteko (trivial, kartak, damak, monopoly... ) eta solasaldiak izateko aprobeixatu aukera ezin hobea da. Pelikula batzuk batera ikusi.

**10.-** Zure etxebizitzak eskeintzen dizun aukeren arabera bilatu modu ezberdinak ariketa fisikoa egiteko (zomba, zirkuitoak egin, youtuben tutorialak).

**11.-** Seme-alabekin komunikatzeko, entzun arretaz haiek eskatzen digutena erabaki bat hartu baino lehen . Inposaketaz baino, elkarrizketaz eta negoziazioez jokatzeko saiatu.

**12.-** Bere hutsuneak, akatsak kritikatu, zuzendu , zentratu egin duten ekintza zehatzetan,baina etiketak jarri barik .

**13.-** Bizitza ordenatu bat eraman dezan oso garrantzitsua da: lo egiteko orduak, gosariak eta bazkariak orokorrean erregulatu.

**14.-** Gure rola edo papera gurasoena izaten jarraitzen da, gu ez gara seme-alaben lagunak, "kolegak"...

**15.-** Leku guztietan, egoera, lagun eta familia guztietan gertatzen diren gatazkeen aurrean pazientziaz jokatu. Zure seme-alaben eta zuen emozio eta sentimentuez hitz egiteko eta maneiatzen ikasteko egoera horiek erabili (hezkuntza emozionala etxean ere garatu).

**(Egilea: Roberto Salazar)**